

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

Alkurruntz (Nafarroa)

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
JOSU GAINZA

Alkurruntz

Amaiurko azken harresia

Izan zitekeen ibili baten kronika da hau; izan zenentz ez dakigun arren. Izan daitekeen txango baten deskripzioa ere bada. Amaiurko gaztelua, 1522 urtea. Egoera larria da. Gaztelako gudarosteak hurbil daude, oso hurbil; borrokaldia ekidinezina da. Nafarrak gutxi dira, oso gutxi, eta laguntza ezinbestekoa dute. Ezkutari gazte bat aukeratu dute harresiak defendatzeko gudari bila joan dadin. Atzeko atetik, harresien barruan ezer gutxirako balio duen zaldi baten gainean, ziztu bizian abiatzen da Otsondo mendatean gora Garazira ahalik eta azkarren ailegatzeko asmoz.



Otsondoko mendateak (575 m.) Baztan eta Xaretako herriak banatzen ditu. Igoera latza da zaldi gainean egiteko ere. Gainera borrokaldiaren oihartzunak gogor astintzen du ezkutariaren burua. Ke usaina pagadietaz jabetzen hasia da.

Otsondoko gainera heldu aurretik, azkenaurreko bihurgunean, gazteak zaldia uztea erabaki du bidearen ezkerretara ageri zaion lautada txiki batean; gaur egun aparkalekua dagoen lekuan hain zuzen. Handik, aurrez aurre hasten den bidea hartzen du, Etxalarren bukatzen dena, begietan Alkurruntzeko piramidea duela. Handik ezin hobeto ikusiko du Amaiurren gertatzen ari dena. Bideari jarraituz bost minutuz gutxi gorabehera, ezkerretara, tontorretik zuzenean jaisten den gandorra harrapatu, eta bide zehatzik gabeko igoera hasten da, inoiz gandorretik banandu barik. Belarrezko bide honek ez du atsendenik ematen, igoera zuzena baita.



Bi menhir eder

Aldapa gogorren erdialdera edo, ordeka txiki bat aurkitzen du, Artzubieta izenekoa. Zorua harriz beteta dago, harrobi baten antzeko irudia emanez. Erdi erdian bi menhir eder agertzen dira, bata bestearen ondoan. Euretako bat pixka bat makurtua du pasatako urteen zamak. Bi harri luzeok

antzinako artzaintza denboraren testigu dira. Ezkutariak berriro heltzen dio atsendenik gabe tontorreraino eramango duen aldatsari. Azkeneko metroak harlauza zabal batzuk igarota egingo ditu, tontorrera zuzen abiatzen den gandorretik pixka bat ezkerretara joaz. Egun euritsua izan ezker oraindik ezkererago egin beharko zukeen, oso

erraza baita harlauzetan irrist egitea bustita daudelarik.


Alkurruntz kaxkotik Amaiurra so

Eta han da ezkutaria, Alkurruntzeko tontorrean zutik Amaiurko gaztelua, eta herria, oinetan duela. Bihotzean zirrara hotz bat sentitzen du. Hoge mila erasotzaile gaztelar, berrehun nafarrek defendatzen duten harresi txikia txikitu guran. Begiak altxatuz, galdu berri duten lurraldeak bere burua betetzen du. Ekialdean Amaiur, eta honen gainean Gorramendi eta Gorramakil, eskuinera jarraituz Baztango lurrak, hegoalderaino; euren

Amaiur

1522. urtean, Nafarroako erreinua berreskuratzeko azken saioak porrot egin zuen, Iparraldera bidean zihoazela, berrehun nafar Amaiurko gazteluan gotortu ziren, amaiera arte erresistitzeko asmoz. Hauen kontra Gaztelak bere indar guztiak bidali zituen, tartean hainbat nafar ere bazegoen, Lerineko kondea eta Naiarako dukea adibidez. Azkenean, eta setio luze eta gogor baten ondoren, bere bizitza salbatuko zutelakoan, nafarrek errenditza erabaki zuten. Batzuk Hondarribiako bidea hartu zuten borrokan jarraitzeko asmoz, Jasotarrak eta Azpilikuetarrak etsenplu; beste batzuk kartzelaratuak izanda, ziegan hil zituzten, Belzotarrak eta Pedro Nafarroakoa adibidez.

Gaur egun, gazteluaren harresiak berragertzen hasi dira. Gainera 1982. urtean eraikitako zutarrak gotorlekua zegoen muinoa gogoratzen digu.





Menhirrak

Usu mendi-lepoetan kokatzen dira, urrunetik ikusiak izateko moduan. Euskal Herrian nahiko arruntak dira, nahiz eta gaur egun asko desagertuta egon; anitz hesi edo mugari gisara berrerabiliak ere bai. Euskaldunok baditugu hainbat hitz menhirrak izendatzeko, iruinari, errolan-harri edo sanson-harri besteak beste. Sineste zaharren arabera pertsonaia mitiko horrek mendietatik harriak botatzen zituen arerioen kontra.

Oso ohikoa da harribakar hauen ondoan beste aztarna arkeologikoak topatzea, batez ere harrespilak eta tumuluak, eta batzutan, harribakarra harrespila baten barruan kokatzen da. Erne orduan mendietara goazenean, askotan gerta baitaiteke hauetako harri baten ondoan pasatzea eta konturatu ere egin ez, mugari bat delakoan, asko baitira lan honetarako "birziklatu" egin direnak.

Zutarri hauek Euskal Herriko txoko askotan aurkitu ahal baditugu ere, kopururik handienetakoa Baztan eta Aldudetan kokatzen da.



Otsondorako bueltako bidean gehiena bide zelaia da. Azpian Artzubietako menhirrak.

atzean Saioa, Iruñerako norabidean. Iparraldean, Xareta eskualdea, Urdazubi eta Ainhoa. Ezkerrera Mendi-bil eta Atxuri gailurrak, eta horien gibelean kukututa Zugarramurdi eta Sara. Mendebaldean Etxalarreko gainak, Larrun zorrotza eta atzean Donibane, Biarritz eta Kantauri itsasoa. Urrunago Bidasoa eta Gipuzkoako lurrak, Aiako Harria agerian delarik. Begiak malkoz beterik hegoaldera abiatzen ditu pausu geldoak. Sigi-saga egiten duen bidea hartuta, eta etxola batzuk atzean utziaz, Zueta lepora ailegatzen da (810 m.). Alkurruntz eskuinetik zeharkatuz Iparraldera jotzen duen bidea hartu baino lehen, oso gertu eta zuzen irabazten den Betarteko Harrien tontorrera (825 m.) abiatzen da gero. Lehenagoko ikuspegi bera duen arren, Amaiurtik gertuago dagoenez, gatazkaren azkeneko taupadak ikusteko parada izango du ezkutari gazteak. Handik ikusiko du nafarren nahitaezko errendizioa, gaztelarren traizioaren atariko.

Behin Zueta Lepora iritsita erabaki bat hartu behar du. Amaiurrera zuzen jaisten den bideari atxiki, ondo markatutako seinaleak erakusten dion moduan, ala Alkurruntzeko maldak eskuinetik inguratzen dituen bideari jarraituz, zaldia utzi duen lekura esfortzurik gabe heldu, zaldia hartu, eta iparraldera joan, desterrura.

Bigarren aukera hartu eta bide zabala jarraitu baino ez du egin behar. Pixkanaka altuera galduz ia gehienean bide zelaian egingo du aurrera. Batzuetan basotxoak zeharkatzen ditu Otsondorako bidea topatu arte, eta horri jarraituz laster da zaldiaren ondoan. Amaiurko norabidean begiratu eta bihotza hunkiturik, zotinka, bere sentimendua kantatzen du lau haizetara:

*Alkurruntzeko gainetik
Artzubietako harrien artetik
irrintzi sakona ta mindua
Amaiurreko azken boluntarioei
bibotzeraino zuzen zuzendua darie.*

*Alkurruntzeko maldak eta harriak
Artzubietako zutabe zabarrak
antzinako arbasoek jarriak
orain pairatu behar garai zakarrak. ■*